

FUTBOLA

Sola: «Talde defentsiboa ateraz gero ezin da aurreraino iritsi»

Txantrearrak kritikatu egin du Sofiako partiduen planteamendua

Osasunak atzo egin zuen aste honetako azken entrenamendua, gaur eta bihar festa izango bait dute gorrirxoek. Sofiako oraindik buruan, hausnarketerako astia izan dute taldean, baina denak ez dagoz bat. Miguel Sola aukian egon zen, eta bertatik «dena desberdin» ikusten bada ere, iritzi garbia atera zuen partidutik.



Sola ziur da UEFAko kanporaketa gaitutako dutela.

JOXE

Partiduen aurreko egunetan asko idatzi zen Slaviaren ahultasunaz, eta litekeena jokariak ere honekin kutsatzea. Solak ere giroak zer ikusirik izan zezakeela aitortzen du. «Dena oso errezegi paratu zen, taldea ikusi gabe ere, eta batzuentzat ustekabea izan zen Slavia. Gu, hala ere, ongi mentalizatuta geundela uste dut. Irabaz genezakeen konfidantza bagenuen, baina ez geunden lasai, eta jabetuta ginen partiduen garrantziaz. Ongi hasi ginen, baina gero gauzak okertu ziren, eta ezinezkoa izan zen gol bat egitea».

Urriaren bian El Sadarreko partiduan kanporaketa gaitutako duela inork ez du zalatzen jartzen Iruñean,

baina erdilaria zuhur da. «Kontrako gol bat oso arriskutsua da, beste gol egiten badute zaila izango delako. Dena ez dago, inondik inora, erabakita».

Joaneko partidua ikusita, zaletu asko benetan haserretu egin ziren bere taldearekin, baina hurrengo partiduan taldeak afizioaren laguntza izango duelakoan da Miguel. «Taldeak jendea animatzen ez badu, jendeak ez du taldea animatzen, eta alderantziz. Horregatik, nik uste dut jendea jabetu dela partidua zaila izango dela, eta etorriko dira gu animatzera. Hain zuzen ere, une txarretan behar dira laguntzak, indarrak edonondu ateratzeko».



John Benjamin Toshack.

duten arte ez da ikusiko benetako Realak bere ustez, biek batera jokatuzko asmoz fitxatu bait zituen.

GAZTEEN LANA BIKAINA Realeko jokari gazteek lan polita egin dute orain arte eta beraien izan dira dudarik gabe talde honetako ezustekorik pozgarriena. Gazte hauen artean bi dira arrakasta gehien lortu dutenak, Bittor Alkiza eta Joseba Irazusta hain zuzen ere. Alkizak titular moduan jokatu ditu orain arteko konpetizio partiduetan guztiak eta zelai erdiari bizitasuna eman dioela esan beharra dago. Ourense-aren aurka denboraldi honetan falta zitzaion bakarra lortu zuen azkenik, gola sartzea alegia. Hemendik aurrera, lasaitasun gehiagorekin jokatze-ko aukera izango du, Toshacken konfidantzako gizona bihurtu bait da jadanik.

Joseba Irazustak denbora gehiago behar izan du lehen taldearekin jokatu ahal izateko, baina entrenatzaileak emandako aukerak ederki aprobet-



Tabuenka maila gorenean ari da zurigorrien artean.

BASALDUA

Saez: «Oraindik ere, oker onartezinak egiten ditugu»

RAMON BASALDUA / BILBO

tzea eta bere ordez Tabuenka zelairatzea.

Athleticek, lau eta bat irabazi eta Alaves kanporatu zuen arren, ez zuen joko ona erakutsi. Iñaki Saezek onartu egin zuen atzo Lezaman, bere jokariaren okerrak garrantzitsuak dirrela. «Taldea erantzun ona eman zuen, eta lehen zatian bost edo sei gol aukera garbia izan genituen. Bigarren zatian gaizki hasi ginen arren, ez genuen arazo handirik izan. Dena den oraindik ere oker onartezinak egiten ditugu, eta Alavesen kontra arazo handirik ekarri ez duten arren, ez zen gauza berdina gertatuko lehen mailako talde baten kontra».

Oskar Tabuenkak beste gol bat sartzeaz gain, lan ona burutu zuen zurigorrien defentsan. «Ripodas eta Aiarza sendatzen direnean, Oskar Tabuenka atzekaldera pasako da. Jokalari hau fin ibili da jokatu dituen partiduetan, bai atzekaldean eta baita erasoan ere», adierazi zuen Iñaki Saezek, atzo Lezaman izandako entrenamendua amaitu ondoren emandako prentsaurrekoan. Tabuenkak liga honetako lehen hiru partiduetan erdikaldean jokatu duen arren, bere benetako postua defentsako erdikaldean dago.

Orain arte Salinas, Alkorta eta Andrinua izan dira titularrak, baina baliteke horietako bat aukera pasa-

MENDIGURENEN LANA ONA Mendigurenek partidua ederra jokatu zuen ostegunean San Mamesen Alavesen kontra. Oñatiarrak, jokaldi onez gain, lan izugarria egin zuen lehen minututik eta errematatzerakoan duen erraztasuna erakutsi zuen. Ander Garitano ez dabil oso fin azkenaldi honetan eta Iñaki Saezek erabaki zaila izango du, Logroñesen kontra zelairatuko duen hamaikakoa erabakitzerakoan. «Mendiguren jokalaria ona da. Alavesen kontra, gauza garrantzitsuak egiteaz gain, arriskua eraman zuen gasteiztarren defentsara eta gol aukerak sortu zituen».

Saezek hamaikako jakin bat zuen aurrendenboraldian, baina liga hasi eta emaitza txarrak ikusi ondoren, aldatzek sartu ditu. Orain arteko aldatzek gain, ikusi egin beharke Logroñoko Las Gaunasen zurigorrien entrenatzaileak zelairatuko duen hamaikakoa. «Athleticek ez dago titularrik. Jokalari oso garbi izan behar dute, plantilan gizon asko daudela eta edozein unetan titular-tasuna galdu dezaketela, izan ere segurtasun eza hori ona bait da taldearentzat», esan zuen Saezek.

Realak goizean entrenatuko du atzoko atsedean egunaren ondoren

P.A. / DONOSTIA

Realak gaur goizean entrenatuko du Zubietan John Benjamin Toshacken aginduetara. Donostiarrek atsedean eguna izan zuten atzo, Ourense-aren aurkako Kopako partidua jokatu ondoren, eta gaur lanera itzuli-ko ligako partidurik izango ez den eguna. Toshacken mutilek ez zuten zuzen izan Ourense taldea kanporatuzko, baina galesa ez zen pozik izan atzoko egindako jokorekin. Hurrengo egunetan, Realeko jokariak gogor entrenatuko dute konpetizio eritimoa ez galtzeko eta Ourense-aren aurka berrituko dute. Toshackek talde lana sentitzea garrantzitsua izango du, Carlos Xavier portugaldarraren lesioak atzeratu du taldearen lana, baina galesa itxaropentsu agertuko da. Portugaldarrek batera jokatzen

SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Bihar, igandea, 19.00etan
Liga Txapelketa, 2. maila "A"

BILBAO A.C. - REAL MADRID C.F.

Txarteldegia: STADIUMean
Ezaugarria: "B" Txarteleria

LEZAMAKO KIROL INSTALAZIOAK

Bihar, igandea, 11.30ean / Ohorezko Gazte Maila

BILBAO A.C. - REAL SOCIEDAD

LANCIA BILASA rekin dabil

Alameda Rekalde, 48 • Tfnoa.: (94) 410 12 55